

Recanati: Esaldiaren testuingurua eta edukiak¹

KEPA KORTA

ILCLI (UPV-EHU)

(Recanati: context and contents of utterance)

Abstract

In Literal Meaning, François Recanati argues for contextualism on utterance meaning and content, against literalism, indexicalism and syncretic views. A widely held assumption among participants in the debate is the thesis I call 'monopropositionalism,' that is, the view that the utterance of a non-ambiguous sentence is associated with one and only one proposition (implicatures apart). The only position apparently incompatible with monopropositionalism seems to be the syncretic view, a view that Recanati rejects. However, he doesn't embrace monopropositionalism, as it is clear in his later book, Perspectival Thought.

Keywords: *utterance, thought, content, proposition, truth-conditions, monopropositionalism*

François Recanati (Paris, 1952) gaur egungo hizkuntzaren filosofiako idazle oparo eta itzal handikoenen artean dago. Egindako lanaren garrantziaz jabetzeko, nahikoa da ikustea 1981ean argitaratu zuenetik gaur arte kaleratu dituen liburuen zerrenda *Les énoncés performatifs* (1981), *Meaning and force* (1987), *Direct reference* (1993), *Oratio obliqua, oratio recta* (2000), *Literal meaning* (2004), *Perspectival thought* (2007). Eta zerrenda horri han eta hemen plazaratutako artikuluko piloarena gehitzen badiogu (gehienak sarean eskuragarri dauzka honako helbide honetan: <http://jeannicod.ccsd.cnrs.fr/aut/recanati/>), agerikoa da Recanatiaren ekarpenaren garrantzia, hizkuntzaren eta gogoaren filosofiako argialetxe eta aldizkari nagusien bidez. Izan ere, hizkuntzaren filosofiatik abiatuta, ondo murgildu da gogoaren filosofian ere; eta horrela, oro har, autore

¹ Esker ona adierazi nahi diet Joana Garmendiari eta Larraitz Zubeldiari egindako zuzenketa eta oharrengatik; eta Espainiako Hezkuntza Ministeriorari ikerketarako emandako laguntzagatik (HUM2006-11663/FISO).

ezagunenetakoa bihurtu da filosofia analitikoan, mundu zabalean, azken hamarkada hauetan. Ez da meritu makala, Frantziar filosofia analitikoaren tradizioa eta indarra zein den gogoan izanda (hutsaren hurrengoa, alegia, Frantziako existentzialismoaren, dekonstrukzionismoaren eta filosofia «kontinentalaren» beste joeren aldamenean). Europa kontinentalean filosofia analitikoa zabaldu eta indartzeko ahaleginetan ere saiatua da Recanatari: Filosofia Analitikorako Europar Elkartearen (ESAP) sortzaileetakoa eta presidente ohia da.

Bere liburu eta artikuluetan beti azaldu du gaitasun nabarmena Recanatik, tradizio analitikorik onenean, hizkuntzaren filosofia, semantika eta pragmatikako funtsezko auzi batzuetan egin daitekeen hautu bakoitzaren azalpena (eta izendapena) eta horren ondorioen eztabaida xehea egiteko; paisaia teorikoaren marrazkilari trebea da, alegia. Esate baterako, semantika eta pragmatikako literalismoaren (edo minimalismoaren) eta kontestualismoaren arteko azken urteotako eztabaidak (tarteko indexikalismo, sinkretismo, situazionalismo eta bestelako posizioekin) asko zor dio Recanatiri, hala jarrera bakoitza zedarritzean nola eztabaidagai eta argudio nagusien nondik norakoetan. Puntako egile eta eragilea da gaur egungo hizkuntzaren eta gogoaren filosofian ez ezik, hizkuntzalaritzako adar garrantzitsu horietan.

Ohar honetan Recanatiaren azken bi liburuei erreparatuko diet. Eztabaidatu ditut lehenago bakoitza bere aldetik (ikus Korta 2005 eta 2008, hurrenez hurren), baina oraingoan biak batera hartu nahi ditut kontuan, puntu jakin bati dagokionez, Recanatiaren iritzietan aldaketarik edo bilakaerarik gertatu ote den aztertzeko. *Literal meaning*-en Recanatik kontestualismoaren aldeko hautu argia egiten du, hitzun batek esaten duenean —adierazitako proposizioan— testuinguruaren parte hartze zabala eta sakona onartuz. Literalismoa nolabait onik atera nahi duten tarteko jarrerak (indexikalismoa eta sinkretismoa, hain zuzen) bazterrean uzteko arrazoiak ematen ditu. Baliteke arrazoi horien artean oinarritzko suposizio bat izatea, nik «monoproposizionalismo» esaten diodana (ikus Korta 2007): esaldiari lotutako proposizioa bat eta bakarra dela; esaldiaren informazio guztia proposizio bakar batek biltzen duela alegia. Sumatzen da eztabaida osoaren atzean, zalantzan jarri gabe, ontzat ematen den suposizioa dela hori. Recanatik *Literal Meaning*-en eztabaidatzen dituen jarrera guztiak dira monoproposizionalismoarekin bateragarri, Kent Bachen sinkretismoa salbu. Horregatik, Recanatiaren kontestualismoak ere monoproposizionalismoa besarkatzen duela pentsa liteke.

Perspectival Thought-en, ordea, hasiera-hasieratik, hiru mailatako proposizioak onartzen ditu Recanatik esaldiaren eduki gisa: esaldiaren eduki minimoa, *lektona* edo eduki artikulatua eta proposizio austindarra edo esaldiaren egibaldintza osoak. Ez dio, beraz, monoproposizionalismoari eusten. Ez dirudi, beraz, monoproposizionalismoa Recanatiaren *Literal Meaning*-eko jarrera kontestualistaren oinarrian dagoenik. Kontu hori argitzen saiatuko naiz hurrengo lerroetan.

Sinkretismoaren kontra, monoproposizionalismoarekin bat

Jo dezagun, automobila konpontzera eraman dudanean, mekanikariak honako hau esan didala:

(1) Denbora hartuko du hau konpontzeak.

Perpausaren esanahiaren arabera, eta «hau» izenordainaren esanahiak eskatzen duen testuinguruaren parte hartzearekin, (1)-ek honako proposizio hau mugatzen duela esan daiteke:

(2) DENBORA HAURTUKO DU KEPAREN AUTOA KONPONTZEAK.

Hala ere, ez dirudi, halako testuinguru batean, hori denik inork ulertuko lukeena, ezta mekanikariak esan nahiko lukeena ere. (2), azken batean, egia tri-biala da —jardun orok eskatzen baitu denbora—. Horregatik, ez ditu (2)-k jasozten (1)-en egibaldintza intuitiboak, (3)-ren moduko proposizio batek baizik:

(3) DENBORA ASKO HARTUKO DU KEPAREN AUTOA KONPONTZEAK.

Horra arte guztiak ados. Literalisten eta kontestualisten arteko desadostasuna, puntu horretan, honako galdera honi emandako erantzunean dator: zein da (1)-en esaldiak, testuinguru horretan, adierazten duen proposizioa? Edo, beste hitz batzuetan, zer da mekanikariak (1)-en bidez *esandakoa*? Literalisten ustez (2); horien ustez, perpausaren esanahiak eta horrek eskatutako testuinguruaren parte hartzeak mugatzen baitute esaldi batek adierazten duen proposizioa (ikus, literalisten ordezkari nagusi gisa, Cappelen eta Lepore 2005). Edo, bestela esanda, badira hizkuntza naturalean testuinguruaren mendekoak diren hitzak, «indexiko» esaten zaienak, testuinguru eskatzen dutenak designatzen dutena mugatzeko. Perpausean halakorik badago («hau» izenordaina (1)-en), erreferentzia hori mugatzen soilik hartzen du parte testuinguruak. (2) da, beraz, (1)-ek adierazten duen proposizioa. (3), berriz, pragmatikoki inferitutako proposizioa litzateke literalisten arabera, (2)-ren tri-bialitatea dela-eta, Griceren elkarrizketa maximek azalduko luketen bezala. (3), hortaz, (1)-en inplikaturetako bat litzateke.

Kontestualisten arabera, oso bestelakoa da kontua. Recanatik argi azaltzen duenez, (3) da mekanikariak (1)-en bidez esaten duena; (3) da (1)-en esaldiak adierazten duen proposizioa. Ez du egia tri-bial bat esaten —(2)—, horren bidez (3) inplikatura gisa komunikatzeko; (3) ez baita inplikatura, inplikaturen inferentzien abiapuntua baizik. Literalistek diotenaren aurka, testuinguruaren parte hartzea ez da adierazpen indexikoek eskatzen dutenera mugatzen. Horiez gain, *asetze* prozesu pragmatikoak gertatzen dira proposizio oso bat mu-

gatu ahal izateko; eta, areago, *modulazio* prozesuak (*aberaste librea, transferentzia* eta *zentzua hedatzea*) ere gerta daitezke.

Literalisten eta kontestualisten arrazoiak bilduta, bi proposizioak, (2) eta (3), onartzen ditu jarrera sinkretikoak (1)-en esaldiaren eduki gisa. Bach (1994a, b) litzateke, esate baterako, jarrera horren ordezkari. (2) semantikak mugatutako proposizioa litzateke; perpausaren esanahiak eta testuinguru *es-tuak* (esaldiaren egileak, denborak, tokiak eta mundu posibleak osatzen duten testuinguruak) mugatzen duten proposizio «minimoa». Horrez gain, testuinguru zabalaren laguntzaz, «inplizitura» pragmatikoek aberastutako proposizioa legoke, (3), hiztunak adierazi nahi duen proposizioarekin bat datorrena.

Recanati, ordea, ez dator bat jarrera sinkretikoarekin. *Literal Meaning*-en esaten duenez, ez dio zeregin teorikorik ikusten proposizio minimo horri, ez bada literalismoaren oinarritzko ikuspegiari nolabait eutsi ahal izatea. Baina horri eusteko ere ez omen du balio, askotan proposizio hori ez baita proposizio; esan nahi baita, ez ditu egibaldintza *osoak* mugatzen. Horixe da honako adibideotan ikus daitekeena:

- (4) a. Euria ari du.
b. EURIA ARI DU.
c. EURIA ARI DU *DONOSTIAN*.
- (5) a. Maia altua da.
b. MAIA ALTUA DA.
c. MAIA ALTUA DA *HIRU URTE IZATEKO*.

(4) edo (5) esaldien bidez adierazitako proposizioak, testuinguru egokietan, (4c) eta (5c) izango dira, hurrenez hurren. Baina nekez har daitezke (4b) eta (5b) esaldi horiek adierazitako proposizio minimo edo semantiko gisa ere, ez baitira proposizio, ez baitute egibaldintzarik mugatzen, testuinguru baliatuz, bati toki bat eta besteari konparazio irizpide bat gehitzen ez bazaie. Baina, hori egitean, proposizio minimoa ukatzen ariko ginateke, eta, kontestualismoarekin bat, testuinguruaren parte hartzea adierazpen indexikoek eskatzen dutenetik harago onartzen. Bachen sinkretismoa ez da, beraz, Recanatik dienez, literalisten proposizio minimoari lekua egiteko bidea.

Sinkretismoa alde batera utzita, literalisten eta kontestualisten (eta tartean indexikalisten, situazionalisten eta besteren) arteko eztabaida izan da, funtsean, esaldiaren edukia, adierazitako proposizioa, egibaldintzak, edo hiztunak esandakoa den *proposizio bakar horren* osagaiak zeintzuk diren eta nola mugatzen diren. Horregatik, monoproposizionalismoa sumatu dugu eztabaida guztiaren oinarrian. Eztabaida horri eta semantika eta pragmatikako beste hainbati dagokienez, monoproposizionalismotik askatzea onuragarria litzatekeela argudiatu dugu batzuek (ikus Korta 2007). Recanatik bide horri ekiten dio argi eta garbi *Perspectival Thought*-en.

Esaldien edukien alde, sinkretismoarekin bat

Zehatza izateko, Recanatik argi uzten du, *Literal Meaning*-en, ez duela sinkretismo mota ororen kontra egiten, literalismoan oinarritutako sinkretismoaren kontra baizik. Lehenago ere, *Direct reference*-n (316-318 or.), aitortzen dio izaera «kontrafaktiko» bat proposizio minimo horri. Eta *Literal Meaning*-en bertan (103-106 or.) ez dio eragozpenik aurkitzen Perryren (2001) proposizio minimo erreflexiboari. Recanati ez da monoproposizionalismoari zeharo lotua azaltzen. Egia esan, gutxitan agertzen du inork monoproposizionalismoaren defentsa espliziturik; gehienetan inplizituki ematen da ontzat. Nolanahi ere, *Perspectival Thought*-en pluriproposizionalista agertzen zaigu Recanati; sinkretiko, alegia.

Perspectival Thought-en, Recanati ez da literalismoaren eta kontestualismoaren arteko eztabaidan murgiltzen. Esaldiaren eta pentsamenduaren *edukiak* dira aztergaia. Eta hiru eduki maila bereizten ditu. Honako hauek esaldia-ri dagokionez:

- esandako perpaus tipoaren esanahia, testuinguru-independentea; Kaplan (1989)-ren karakterearen parekoa.
- esaldiaren eduki esplizitu edo artikulatua, *lekton* esaten diona, Kaplanen edukiaren tankerakoa;
- esaldiaren egibaldintza osoak; eduki artikulatuaz gain, esaldiaren gaia edo ebaluazio zirkunstantzia den situazioa ere hartzen duen proposizio austindarra.

Lekton hori sinkretikoen proposizio minimoaren baliokidea da *Perspectival Thought*-eko eskema berrian. Zergatik onartzen du Recanatik orain? Hasteko, proposizio *erlatiboak* —egibaldintza erlatiboak dituzten proposizioak—onartzeko arrazoiak ikusten dituelako (horregatik esaten dio «erlatibismo» bere jarrerari). Horrela, proposizioen osagai artikulatuen eta artikulatugabeen arteko desberdintasuna azal daiteke. Har berriro (4) esaldiaren kasua:

- (4) a. Euria ari du.
 b. EURIA ARI DU.
 c. EURIA ARI DU DONOSTIAN [S SITUAZIOAN].

Denbora kontuak alde batera utzita, *lektona*, eduki artikulatua, toki-erlatibo den proposizioa litzateke (4b), toki batzuei dagokienez egiazkoa, beste batzuei dagokienez faltsua den proposizioa. Horrez gain, esaldiaren egibaldintza osoek tokia —Donostia, hiztuna horri buruz ari bada— hartzen duen situazioa ere izango lukete osagai gisa. Baldintza egokietan, (6a)-ren esaldi batek ere egibaldintza oso berak izango lituzke, baina *lekton* desberdina adierazi:

- (6) a. Euria ari du hemen.
 b. EURIA ARI DU DONOSTIAN.
 c. EURIA ARI DU DONOSTIAN [S SITUAZIOAN].

(4b) *lektona* toki-erlatiboa da, baina (6b) ez. (6b)-n tokia artikulatua dator «hemen» indexikoaren bitartez. Hori da bi esaldi horien arteko desberdintasun nagusia, adierazten dituzten usteen edukietan ere islatzen dena. (4a)-ri dagokion usteak ez du toki errepresentazio bat artikulatzen; (6a)-ri dagokionak bai. Izan ere, *lektion* nozioaren alde egiteko, garrantzi handia hartzen dute gogoaren filosofiako argudioek *Perspectival Thought*-en. Printzipio metodologikoen artean, berriz, honako bi hauek:

Dualitatea: «egibario bat lortzeko ebaluazio zirkunstantzia behar dugu, ebaluatzeko edukiaz gain.» (33 or.)

Banaketa: «egibarioaren mugatzaileak egi-ebaluazioaren oinarritzko bi osagaien artean banatzen dira: edukiaren eta zirkunstantziaren artean. Hau da, egibarioaren mugatzaile bat, denbora bat, esate baterako, bietako bat, edukiaren osagaia da *ala* ebaluazio zirkunstantziaren alderdia da.» (34 or.)

Horren ondorioz, (4)-ren kasuan Donostia ez da *lektionaren* osagaia, ebaluazio zirkunstantziarena baizik. (6)-reanean, berriz, alderantziz.

Hitz gutxitan esanda, Recanatik bi eduki onartzen ditu esaldi (eta gogo-egoera) bakoitzarentzat, perpaus esanahiari edo karaktereari dagokionaz gain; horrek semantika, pragmatika eta gogoaren filosofiako hainbat arazori aurre egiteko tresneria egokia eskaintzen diolakoan. *Perspectival Thought*-eko «erlatibismo moderatu gogorra», *Literak Meaning*-eko bereizketen harira irakurritzerok, jarrera sinkretikoa da, beraz. Sinkretismoaren kontra azalduetako jarrera hark literalismoaren kontrako argudioetan izan behar du erroa, beraz; eta ez, pentsa zitekeen bezala, monoproposizionalismoa besarkatzean.

Erreferentziak

- BACH, K. (1994a), «Conversational implicature». *Mind and Language* 9: 124-162.
- BACH, K. (1994b), «Semantic slack: what is said and more». In S. tsohatzidis (arg.), *Foundations of Speech Act Theory*, London: Routledge, 267-291 or.
- CAPPELEN, H. eta E. LEPURE (2005), *Insensitive semantics*. Oxford: Blackwell.
- KORTA, K. (2005), «François Recanati: *Literal Meaning*». *GOGOIA* V-1: 145-151.
- KORTA, K. (2007), «Acerca del monoproposicionalismo imperante en Semántica y Pragmática». *Revista de Filosofía* 32 (2): 37-55.
- KORTA, K. (2008), «François Recanati: *Perspectival Thought: A Plea for (Moderate) Relativism*». *Notre Dame Philosophical Reviews* (<http://ndpr.nd.edu/>)
- PERRY, J. (2001), *Reference and Reflexivity*. Stanford: CSLI Publications. (Gaztelaniazko itzulpena, K. Korta eta R. Agerrirrena, *Referencialismo crítico. La teoría reflexivo-referencial del significado*. Stanford: CSLI Publications, 2006.)
- RECANATI, F. (1981), *Les énoncés performatifs*. Paris: Minuit.

- RECANATI, F. (1987), *Meaning and force*. Cambridge: Cambridge University Press.
- RECANATI, F. (1993), *Direct reference: From language to thought*. Oxford: Blackwell.
- RECANATI, F. (2000), *Oratio obliqua, oratio recta*. Cambridge, MA: MIT Press.
- RECANATI, F. (2004), *Literal meaning*. Cambridge: Cambridge University Press.
- RECANATI, F. (2007), *Perspectival thought. A plea for (moderate) relativism*. Oxford: Oxford University Press.